

PuLunPe

168. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





Olerkia

Zuhaitzen denbora

Zugan da zuhaitzen denbora
elkar maitatu ondoren.

Ohean lo, betazalek
soilik estaltzen zaituzte.

Ez jarraitu beldurrari,
ez esan beti, ez esan inoiz ez,
utzi libre munduari
bidea egiten.

Zugan da zuhaitzen denbora

elkar maitatu ondoren.

Plazer-urak biltzen zaitu
malkoak begia legez.

Ez jarraitu beldurrari,
ez esan beti, ez esan inoiz ez,
utzi libre munduari
bidea egiten.

Zugan da zuhaitzen denbora
elkar maitatu ondoren.

EDURNE VILLANUEVA IRURITA, EGOZKUEKO BANATZAILEA

"Oso harreman **ona** dugu Egozkuen"



Egozkueko Gartzuntzenekoa da Edurne, eta bertan ditu senarra eta bi alaba ere. Haiekin egiten du Pulunperen banaketa. Lanā, ordea, Iraizoko poligonoan egiten du, Ultzamako Nekazaritza Dendan, eta bertan elkartu gara berarekin.

Zenbat bizi zarete Egozkuen?

25 bat. Duela urte batzuk jeitsi egin zen kopurua, baina orain haur berriak jaio dira eta hazi egin da herria. Orain 7 haur daude 7 urtetik beherakoak. Urte berean hiru neskatila jaio ziren.

Olaguetik aparte zaudete Egozkuen, arazoa da hori?

Ez, pixka bat aparte dago baina ez da deus kostatzen ez Olaguera ez Iruñera joatea. Eta Egozkuen bertan ere gustura egoten gara, egia esan ez gara asko jaisten Olaguera.

Anueko egunerako ez zenuten herri kirol talderik atera.

Ez, ez dugu jende nahikorik. Hala ere, datorren urtean Egozkuen izanen dugu Anueko eguna, eta beraz, esfortzu handiagoa egin beharko dugu. Bigarren aldia da Egozkuen izaten dela.

Festak ere egiten dituzue?

Bai, sanmigeletan. Herrikoak egoten gara, beste herrietatik ez dira etortzen, baina oso gustura egoten gara, oso harreman ona baitugu. Aurten elkartaren inaugurazioa egin genuen, "Zurupatoki" deitzen diogu. Lehen eskola zena berritu dugu, hutsik eta erabili gabe baitzegoen, eta orain erabilera handia ematen diogu, asko elkartzen gara bertan.

Herrikoek bertan egiten duzue lan edo kanpoan?

Gehienek kanpoan, baina herrian ereazienda daukagu. Martak ardiak ditu, guk haragi-behiak, beste batek ardiak ere. Dena den, gazte gehienak kanpora joan gara lanera, Iruñera denak ni izan ezik. Baina, Egozkuen bizitzen geratu gara. Txikitant pereza handiagoa ematen zidan Iruñera joatea, baina ez da deus kostatzen, 20 minutu besterik ez dugu Atarrabiara.

Ni bizikletarekin pasatzen nintzen Egozkuetik...

Bai, txirrindulari asko pasatzen da, eta baita kotoxeak ere. Lehen baino trafiko gehiago ibiltzen da, eta lehen ez zegoen arazorik haurrak libre uzteko, baina orain beldur pixka bat ere ematen du errepidean ibiltzeak.

Euskaraz nola moldatzen zarete?

Denetik dugu. Haurrek denek dakite euskaraz, eta gurasoren batek ere. Nik bizitza osoa daramat ikasi nahian, baina utzi egin nuen, ea orain hurrekin berriz hartzen dudana hitz batzuk egiteko sikiera. Uharteko Zubiarte euskaltegian aritu nintzen hasieran, gero Lantzen atera zen eta ondoren Larraintzarren. Eta lanean ere ikastera motibatzen nauten, baita euskaraz egin ere, eta gehiena ulertzen dut, baina asko kostatzen zait euskaraz egitea.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantz, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Azaroaren 11an bidalia

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



KULTURA AGENDA

Azaroak 24 19:00 Larraintzar

Acción Matrioshka

Poética Kiribila

Ekintza kulturalaren arloko proiektua, hainbat diziplina artistiko biltzen dituena. Talde-
deek (Uxue Juarez, poeta; Amaia Lopez, dantzaria; Paula Azcona, biolontxelo jotzai-
lea eta Maider Lekunberri, antzezlea) poemak, dantza, antzerkia eta musika nahasten
dituzte eta "maitasun erromantikoaren" fenomenoari 435 graduko bira ematen saiatzen
dira.

Bakoitzak bere diziplinatik Violeta interpretatzen dute. Emakume honek insomnioa
badu, ardoa edaten du eta mandarinak jaten ditu, Matrioshkez gaixo dago, hau da,
"maitasun erromantikoaz" erituta dago.

Azaroak 25 20:00 Iruñea Gaztelu Plaza

Manifestazioa

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Indarkeria sexistaren aurkako Nafarroako Emakumeen Plataformak antolatuta

Erakusketa

Larraintzarko eskolako ikasleek egindako lanak.

Azaroaren 3 an

Tailer adin guztiendako

Juan Fernández Cuichanek, Ekuadorko artistak, eskainiko du umeentzako zein hel-
duentzako Andeetako maskarak sortzeko taller bat, kartoi meheak eta errotuladoreak
erabiliz.

**ABENDUAREN 15EAN 19:30EAN
APEZTEGIBERRIKO
GANBARAN
KIKE AMONARRIZEN HITZAL-
DIA: "EUSKARA BIDEGURU-
TZEAN BASABURUAN"
ONDOREN AFARIA ETA SOLA-
SALDI BEREZIA BERAREKIN**



"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugl@gmail.com



ANUEK EZETZ DIO ANUE DICE NO
Emakumeenganako indarkeriaaren aurkako nazioarteko eguna
Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres

25 AZAROA

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

Azaroak 5 Basaburoko kultur etxean 17:00 Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Azaroak 17 Larraitziarko Bentan 19:00 Indarkeria: De la violencia a la vida 19:30 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Azaroak 25 Burletako Kultur Etxean Geroa Indarkeriaaren aurkako eguna / Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres 17:00 Herria
Azaroak 10 Larraitziarko Bentan 19:00 Emakumeen erakundeak / Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Azaroak 23 Basaburoko kultur etxean 19:00 20:00 Basaburoko kultur etxean / Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	ERAKUSKETAK Geroa Indarkeriaaren aurkako eguna / Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa Carmen Diaz Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa Leire Olvera Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa Larraitziarko Bentan 20:00 Basaburoko kultur etxean / Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa
Azaroak 11 Basaburoko kultur etxean 20:00 Emakumeen erakundeak / Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Azaroak 24 Larraitziarko Bentan 19:00 20:00 Basaburoko kultur etxean / Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Azaroak 25 19:00 Emakumeen erakundeak / Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa
Azaroak 14 Agostegiberrin 17:00 18:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 19:00 20:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	Manifestazioa Irulean Irulean Kultur Etxean / Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	25.11.2019 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa
5. noviembre Casa Cultura Basaburoa 17:00 Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	17. noviembre Venta de Larraitziar 19:00 Indarkeria: De la violencia a la vida / Presencia del libro 20:00 Herria	25. noviembre Casa Cultura Burleta 17:00 18:00 Geroa Indarkeriaaren aurkako eguna / Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres
10. noviembre Venta de Larraitziar 19:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	23. noviembre Casa Cultura Basaburoa 19:00 20:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	ERAKUSKETAK Carteles contra la violencia de género Casa de Cultura de Burleta Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa Carmen Diaz Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa Leire Olvera Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa
11. noviembre Casa Cultura Basaburoa 20:00 Emakumeen erakundeak / Dena Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	24. noviembre Venta de Larraitziar 19:00 20:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	25.11.2019 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa
14. noviembre Agostegiberrin 17:00 18:00 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	25. noviembre Manifestación 20:00 Herria Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa	25.11.2019 Argazkilaria: Txabala del Riquie Teinosa

ONDDOAREN EGUNA EGITARAU

**DOMINGO 19 NOVIEMBRE
AZAROAK 19 IGANDEA**

08:30 – 15:00
Expedición de permisos.
Consultoría micológica.
Baimena ematea.
Mikologia aholkularitza eta erakusketa.

11:00 – 13:00
Ludoteca.
Umeentzako ludoteka.

11:00 – 14:00
Degustación de eco-talos con setas.
Eko-taloak perretxikoekin dastaketa.

12:00
Exposición de setas explicada a cargo del micólogo Javier Gómez.
Ziza erakusketa Javier Gómez mikologoak azalduta.

14:00
Sorteo de premios.
Sari zozketa.

10:00 – 14:00
Mercado de setas. Venta de setas en fresco y productos micológicos. Libros y artículos de micología. Artesanía, réplicas de setas y esculturas. Venta de trufas y productos trufados. Servicios y productos micológicos. Artesanía en madera.
Ziza azoka. Basoko zizak salgai. Lehor zizak salgai, liburuak eta mikologiko-gaiak. Eskulangintza, zizeen erreplikak eta eskulturak. Trufak salgai eta trufakin egindako produktuak. Produktu eta zerbitzu mikologikoak. Egurrezko eskulangintza.



**ESKA EZAZU
OFIZIALITASUNA,
BERDINTASUNA
LORTZEKO.**

Emakumea, **kataluniarra** eta hemengoa

Ezin izan diogu tentazioari eutsi. Munduko hedabide guztietan gai nagusi bihurtu da Kataluniako independentzia prozesua eta gu ere zer edo zer aipatu nahi dugu, hori bai, gure modura: Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna izan dela probestuz, eskualdean bizi diren jatorri katalaneko lau emakumerekin hitz egin dugu eta bertan ikuskatzaile gisa egon zen beste batekin ere. Bakoitzari nahi zuena kontatzea eskatu diogu, gidoi edo gidarik gabe.



NURIA. BASABURUA

Gutunak banatzen zegoela harrapatu genuen Nuria aizaroztarra, baina gure deia erantzun zuen: "Nik azpimarratu nahiko nuke prozesuaren izaera inklusiboa eta transbertsala, eta horretarako 2 adibide emango ditut. Urriaren 1eko asteburuko larunbatean Bartzelonan egon ginen Nou Barris auzoko eskola batean laguntzen.

MERITXELL. LATASARRA

Luze egon ginen berarekin hitz egiten, eta hiru puntutan laburtuko dugu esan zuena. Urriaren batean, etxean telebistari begira sekulako sentimendu nahastea sentitu zituen Meritxellek: "harridura, lotsa eta samina sentitu nituen telebistako irudiak ikustean, diktadura garaietara itzuliko bagina iruditzen zitzaidan; Iruñera hurbildu nintzen manifestazio batera, zerbait egin behar nuela sentitzen nuelako; igande osoa etxean albisteak ikusten, nahaste handia sentitzen nuen eta "estelada" hartu eta kalera ateratzeko beharra sentitu nuen. Bertan egoterik izan ez dudanez, zerbait egin beharra dut hemen.

Jende askoren iritzia eta iruzkinak jaso ditu Meritxellek, eta batzuetan ez ditu ongi jaso: "Nekatu naute batez ere lanean jaso ditudanak, jendea Kataluniakoa nai-

Zonalde hori ez da batere independentzia zalea, eta harritu gintuen poliziaren bortizkeriak. Jaiotzez Giro-nakoa naiz, oso eskualde katalanekoa eta benetan hunkitu ninduen bizitakoa eskola horretan. Bertan zegoen jende gehiena ez zuen katalanez egiten eta bertan zeuden hautestontziak defendatzen edota badatozela! Oihukatzen aritu ziren. Langile auzoa da orokorrean Nou Barris eta harritu ninduen jendearen jarrerak.

Nire herria den Ripollera hurbildu ginen gero eta gauza bera bizi izan nuen baina jende ezagunekin: aurretik elkarrekin inoiz ez manifestazioetan eta halakoetan ibili eta egun horretan denak elkarrekin. Nire begiekin ikusi nuen proiektu honek jende oso desberdina batzen duela, hedabide nagusietan esaten dena baino askoz gehiago.

zelako bakarrik zenbait gauza esaten dizkit eta esan ohi diet: begira, orain lanean gaude, beste momentu batean hitz egingo dugu lasaiago.


Beste motatako komentario batzuk ere ez ditu ongi hartu Meritxellek: "hemengo baten batek komentatu dit orain ikusten ari garela nola den manifestazio bat eta halakoak. Mindu nau jendeak desberdintzen ez jakitea Katalunian bizitzen ari garena eta Euskal Herrian bizi izan duguna. Puntu komun bezala independentzia sentimendua dago, baina ez dut uste garai desberdinek eta egoera desberdinek sinpleki konpara daitezkeen.

Azken egunetan jendeak eguneroko bizitza normala egiten saiatzen ari bada ere, ezinegona sumatzen da.



FURGONETA HORREKIN NORA ZOAZTE?

Argazkian agertzen den lagun koadrilari autoa matxuratu omen zaio. CUP alderdiko iragarriaren parodia egiten ari ziren. Duela lau bat urte argitaratu zuten film laburrean, "herria" ari zen independentzia prozesuaren furgoneta bultzatzen. Aurtengo iragarkian, aldiz, amildegitik behera botatzen du herriak autoa, nolabait "prozesuaren" alde txarrak behingoz ahaztuz. Ikusiko dugu argazkian agertzen direnen furgonetari zer gertatzen zaion.



ANAÍS RIGAU. BEUNTZAN ETXEA DUTE.

Katalunian gertatu denaren aurrean jendeak eman duen erantzunak harriturik utzi nau. Estatuak nahi zuena lortu du, herriak berak justifikatzea estatuko segurtasun indarrek haien parekoen kontra burutu dituzten ekintza bortitz eta errepresiboak, bere etorkizuna erabakitzen saiatze-agatik.

Herri katalanak, eskolak eta hautetsontziak babes-tuz eta beste masaila eskainiz egin zuen mobilizazio baketsuarekin (beharbada baketsuegia), Kataluniako Gobernuari eskatu zion Estatuaren kontrako borroka azken ondorioetaraino eraman zezan; eta, halere, Kataluniako Gobernuak ez du espero genuen bezala jokatu. Sekula baino argiago ikusten dut erabakitzeko eskubidea eta Errepublikaren eraikuntza kalean irabaziko ditugula.



ESTHER LAKASTA. ALKATE IKUSKARIA.

municipis per la independència) elkartearen begirale papera hartu genuen.

Hemengo eta Eskozia, Kanada, Herbehereetako eta beste herrialde askotariko jendea bildu ginen. Girona bidali gintuzten eta alkateak gure aurrean bozkatu zuen. Ikuskatzera sartzera geundela, ondoko eskolan poliziak nahiko bortizki kargatzen ari zirela esan ziguten, jendea oso urduri, negarrez... Eskatu ziguten bertan geratzea munduari kontatzeko gertatzen ari zena.

Ez ziren eskola horretara etorri naiz eta bizilagunak bizpahiru alditan balkoietatik oihuka hasi "badatoze-lal!". Arratsaldean, bueltatzeko ordua genuen eta berriro eskatu ziguten bertan geratzeko lekuko ginenez ez zirela etortzen esanez. Gure kabuz itzultzea erabaki genuen eskolak itxi arte. Tentsio handiko eguna izan bazen ere, jendearen duintasuna, ausardia eta erreferenduma aurrera ateratzeko determinazioa guztiz hunkitu ninduen.

Udabiltzak gonbidatua bidaiatu zen Esther Kataluniara, Basaburuko alkate gisa. "Euskal Herriko 100 bat hautetsik AMI (Associació de

Eguna Gironan itxi zuen azkeneko eskolan bukatu genuen, 5.000 lagun inguru bildu ginen bertan, modu espontaneoan".



GEMMA. FLOR DE VIDAÑO LANGILEA

Duela hiru urte aitaren testigua hartu eta bere bikotekidearekin batera Lizasora bizitzera etorri zen Gemma. "Oso harrera" ona izan zutela esan zigun izan genuen hizketaldia laburrean.

Kataluniako Pirinioetara oporretan ateratzen ziren egun horretan bertan eta ezin izan dugu luzeago harekin hitz egin. Ultzaman oso gustura daude bizitzen eta eskualde oso aproposa ikusten dute bertan egotea; herri txiki batean bizitzeaz gain, Iruñera askotan jaisten dira bertako kultura ekimenez goatzera.

BOST ISTORIO DESBERDIN, DENAK INTERESGARRI. LAGIN TXIKI BAT IDEI ETA IRITZI OZEANO BATEAN

Aizarotz eta Etxalekuko izaerari eutsiz, Jauntsarasko Ttikiena berria martxan da

Basaburua, Imotz eta Atezko 10 haur dira eraikin berriaren protagonistak, 0 eta 3 urte bitartekoak. Eraikin berriak aukera berriak eskaintzen dizkie hezitzaile eta haurrei, eta pozik ageri dira bai hauek eta baita Basaburuko Udala bera ere.



Urte asko pasa dira Jauntsaratsen haur eskola egiteko proiektua hasi zenetik, baina bertan behera geratu zen orduko Nafar Gobernuaren murrizketen ondorioz. Aizarotzen hasi zen Ttikiena, Etxalekura joan zen gero, eta aurten Jauntsaratsa iritsi da, Ohianzabal ikastetxe ondora.

Uste baino gehiago luzatu dira eraikin berriaren lanak, eta ikastetxeko jantokia haurrendako moldatu behar izan zuten irailean, baina hilabete hartako 26an eraikin berrira lekualdatu ziren, Basaburuko hezkuntza batzordean diseinatutako eraikin berria. Altzairuak eta haurrek euren gaitasunak garatzeko beharrezko materialak ere iristen joan dira gutxika-gutxika.

Izan ere, duela urte batzuk martxan jarri zuten Pickler metodoa erabiltzen dute Jaione eta Amaia Ariztegi hezitzaileek, haurraren berezko autonomia garatzeko helburu duena, hezitzailearen behaketa eta jarraipenaren bidez.

Hezkuntza eredu honetan trebatuta daude bi hezitzaile ultzamarrak, eta beraien lana kontuan hartzeaz gain, espazioa, materialak, jostailuak, ekintzak eta abar luze bat hartzen dira kontuan. Eraikin berri honek eta material guztiek metodo horri erantzuten diote. Beraz, pozik ageri dira Jaione eta Amaia, eta baita Esther Lakasta alkattea ere, hiruekin elkartu baikara Ttikiena eskolan bertan.

Gurasoen inplikazioa ere handia izan da, auzolanen bidez haur eskolak behar zituen hainbat kontu egin baitituzte. Aurten 10 haurrez osatutako hezkuntza unitate bat izanen dute, baina aurrerantzean bi unitate izateko gaitasuna ere izanen du eskolak, erai-kina bi unitatetan pentsatuz egin baita. Kudeaketa publikoko eskola izatea da asmoa, betiere Pickler edo antzeko hezkuntza metodoan oinarrituta.

Aipatzekoa da Basaburuko hezkuntza batzordeak eta hezitzaileek egindako lana, eta urte hauetan guztietan Ioritzek eta Ainhoa egindakoa, haiek hasi baitziren hezkuntza eredu berriak ikertzen, eta lekuko hori hartzen dute Jaionek eta oraintsu hasi den Amaiak.

Atezko Mikel Eugi Nafarroako arpana txapeldun Aresoko Itsaso Onsalorekin batera



Urrian Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu zuten Beran. 8 bikote aritu ziren egurrari hamar ebaketa emateko lanetan, eta ho-

rietatik 4 bikote gure kirolariez osatuta zeuden. Irabazleetako bat ateztarra, Mikel Eugi, Aresoko Itsaso Onsalorekin batera. 4 minutu eta 24 segundotan egin zituzten lanak. Bigarrenak ultzamarrak izan ziren, Eltsoko Ainhoa Iraizotz eta Irizozko Josetxo Barberena (5:26).

Laugarren eta bosgarren postuetan ateztarrak izan ziren berriz ere, Aroztegiko Kañamares familiakoak: hurrenez hurren, Imanol Kañamares Txantreako June Etxeberrarekin batera (5:44), eta Oier Kañamares Elgorriagako Irune Izkuerekin (5:57).



Hizkuntzen Aberastasunean Hazi, Hezi eta Bizi



Urriaren 17an, asteartearekin, egitasmoaren aurkezpena egin zen, Lizasoko Flor de Vida landetxean. Imotz, Basaburua, Ultzama, Odieta, Atetz eta Lanzko udalek eta Oihanzabal eta Larraintzarko ikastetxeetako komunitateek sustatu duten egitasmo honen aurkezpena Sortzen elkarteko Begoña Bitorika bideratu zuen bertaratu ziren 30 lagunen aurrean. Lehenenik eta behin egitasmoaren azalpena egin zuen, eta, ondoren, euskararen inguruko gogoeta bat egin zen taldeka.

Ekimenaren helburua ikasle euskaldun eleanitzak sortzea da. Eskualdeko ikastetxeetako hizkuntza proiektua du abiapuntu eta orokorra den kezka bat, alegia, zer egin euskara eskolako komunikazio hizkuntza duten ikasleek euskara erabil dezaten. Ondorioa, eskolak hizkuntzen gaitasuna ziurtatzen ahal du; ez, ordea, haien erabilera. Beraz, euskararen erabilera normalizatuko bada, hizkuntza proiektuak ikastetxearen mugak gainditu eta gizarte eragile guztien inplikazioa lortzea da erronka.

Lau fase nagusi aurreikusten dira: lehendabizikoan, diagnostikoa eta hizkuntza proiektuaren diseinua; bigarren, hirugarren eta laugarrenean, hurrenez hurren, plan estrategikoa, prozesuaren sistematizazioa eta, azkenik, horren balorazioa.

Diagnostikoa egiteko galdeketa bat helaraziko zaie herritarrei. Horren emaitzak oso baliagarriak izanen dira egoeraren argazki zehatzena izateko; hortaz, eskertzekoa izanen da ahalik eta jende gehien eta zintzoen erantzutea.

Aitor Iraizotz aritzuarra podiumetan berriz ere



Nafarroa Xtrem lasterketan podiumetik kanpo geratu zen gutxiatik, eta laugarren sailkatu zen, baina han erakutsi zuen sasoiko ibiliko zela aurrerantzean. Eta hala izan da, ordutik lasterketa bat irabazi eta beste batean bigarren izan da.

Azkenekoa Izaga Trail lasterketa izan da, 27km eta 1.900 metroko gorako desnibela. Lehenengoa izan zen Izagaondoko Ardanatzeko helmuga gurutzatzen.

Eta distantzia luzeagoetan ere ederki ibili da, horietan

ibiltzen baita hobekien. Guara-Somontano Ultra Trail lasterketan bigarren izan zen, eta izen handiko lasterketa da hau. 98Km eta 5.500 metroko desnibel positiboa. 10 ordu 43 minutu eta 6 segundo eman zituen lasterka, irabazlea baino 8 minutu gehiago.

Aitorrekin hitz egin dugu lasterketa gogor honetako sentazioak jasotzeko:

“Lasterketa gogorra izan da, oso gustuko ditut inguru hauek, ederrak dira baina ibilbidea oso harritsua da eta beroa jasan dugu eguerdi aldera. Hasieratik bukaeraraino erritmo bizia mantendu dut, 3 aste lehenago Nafarroa xtrem-en baina indartsuagoa aurkitu dut nire burua, gorabeherarik gabe.

Lasterketa erdialdetik aurrera, igoera luze baten ostean, 3 korrikalari nabarmendu gara, maila parean ibili gara naiz eta Geray “kanarioa” izan da indartsuena lautadan, Sebastian igoeretan eta ni jaitsieretan.

Azken 55 kilometroak egin ditugu bata bestearengandik aldendu ezinik; ni 12km inguru joan naiz lehena, gero pixka bat atzeratu naiz eta zati handia egin dut hirugarren postuan; eta, azkenean, helmugara 2km falta zirela harrapatu dut bigarrena eta lehena oso gertu izan dut. Nik uste hirutatik edonork irabazi zezakeela, eta 100km-ko lasterketa bat horrelako alde txikian jokatzeari ez da batere ohikoa.

Pozik nago bereziki maila goreneko lasterketa baita, oso kirolari indartsuak zeuden irteeran eta inoiz ezagutu dudana podium borrokatuenean sartzea ez da erraza izan, gainera, ibilbidearen errekorra 15 minututan jaitsi dugu.”



Sinatu da **Berdintasun** plana



Joan zen irailaren 6an, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak onartu zuen, aho batez, eskualdeko Emakumeen eta Gizonen

Berdintasunerako bigarren Plana. Plana Mankomunitatearen gaiarekiko konpromisoaren seinalea da. Proiektu honetan, 40 pertsonak (eskualdeko ordezkari politikoak, teknikariak eta gizarte eragile garrantzitsuenak) hartu dute parte bai aurrekoaren ebaluazioan, bai honen diagnostikoan bai planaren sorkuntzan.

Dokumentu honen helburua da oinarritzko dokumentua izatea datozen sei urteetan eskualdeko genero berdintasunaren inguruko udal politikak zehazteko eta definitzeko, azken finean, zonaldeko emakumeen bizi kalitatea hobetzeko,

Planak lau arlotan esku hartzea ezartzen du: toki gobernamentua eta genero-zeharlerrotasuna; emakumeen aurkako indarkeria; zaintza, erantzukidetasuna eta eginkizunak bateratzea; emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa.

Gure inguruak eta bertako **baliabideak** ikasi zituzten Larraintzarko ikasleek



Udazkenaren etorrerarekin batera, basora abiatu ziren Larraintzarko ikastetxeko ikasle batzuk. Basoak edertu egiten du udazkenak, eta, hostoak lurrera erortzen diren bitartean, lurretik zizak ateratzen dira.

Talde bat ziza eta onddo bila joan zen ikastetxe ondoko basora, Amatira. Ez bakarrik bila, baita haiei buruz gehiago jakitera ere. Horretarako Edurne Ge-

rendiainen laguntza izan zuten, parke mikologikoko kidea. Jarduera parte-hartzaileen bidez, eta basoan gora eta behera ibilita ederki ikasi zuten basoko lagun haiei buruz.

Beste talde bat Lantz aldera joan zen, herriaz eta bertako etxeez gehiago jakiteko. Baina goiza ez zuten soilik horretan eman, ibilbide ederra egin baitzuten Santiagoko bidetik barna. Belaten hasi eta Lantzen amaitu zuten ibilbidea. Tartean Santiagoko bidea beraren inguruan, kontrabandoaren inguruan, base-rria... informazio dezente jasoaz, protagonisten ahotatik.

Tartean Luis Mariñelarena lantzarra aritu zen gidari lanak egiten, eta Lantzen bertako biztanleak izan ziren ikasleei informazioa eman zietenak, gustura aritu ziren Lantzko zaharrak gazteei euren jakintzak transmititzen.

Muskizko etxearen sutea argitu nahian

Urriaren 30eko goizaldean hasi zen sutea Muskizko etxe batean. Bizilagunak konturatu ziren eta suhiltzaileei zein jabeek abisua eman zieten, eta segituan bertaratu ziren biak ala biak. Dena den, etxearen beheko partea bereziki azkar hartu zuen suak, eta zati handi bat galdutzat eman beharko dute jabeek.

Jabeak ez dira Imozkoak, baina asteburuetan etortzen dira etxea eraikitza, ez baitzegoen amaituta, baina gutxi falta zitzaion jada. Ia etxe guztia egurrezkoa izanagatik ere, ez zen guztiz erre barnean ze-

goen oxigeno faltagatik, eta orain suhiltzaileen txostenak esan beharko du zer den erabilgarri eta zer ez.


Etxearen jabeekin egon gara, eta haien eskariz ez dugu publiko egingo nortzuk diren ezta detaile xehetarik ere. Atsekabez eta sorpresaz hartu zuten Polizia Foralaren deia, denbora asko zeramatzatelako etxea eraikitzen, eta bizitzeko prest baitzegoen jada. Asteburua bertan pasatu ostean, igandetik astelehenerako gauean piztu zen sua.

Jabeetako batek esan bezala, bada Suitzan abesti bat,



Gartzarongo 33. pilota txapelketaren kronika

Urtero moduan, data hauek ailegatzen direnean eskualdeko txapelketarik ezagunena bukatzen da. Hiru hamarkada baino gehiago dira eskualdeko eta beste eremuetako pilotariak biltzen, eta aurtengoa ez da salbuespena izan.



Hemen dituzu aurtengo txapelketako datu batzuk: osotara 228 bikotek parte hartu dute; atal bakoitzari begira, umeeetan, 185 partidu jokatu dira, Gartzarongo Toki-Alai frontoian; edizio bakoitzean bezala, leku anitzetatik etorri dira partaideak, final aurrekoetan, adibidez, 15 pilotari nafar, 18 gipuzkoar, 2 bizkaitar eta 1 errioxar aritu dira.

Antolakuntzatik azaldu digute aurtengoa lehenengo aldiz Tuterako Eraso klubekoek izena eman dutela. Hona Toki Alai elkarteko Zepelok bidalitako kronikatxoa. Pulunpetik eskertzen diegu egin duten lana, aurtengoa, adibidez, interneteko sare sozialen bidez astero argazkiak eta emaitzak argitaratuz.

“Azaroaren 4an, arratsaldeko 16.00etan hasi ziren aurtengo finalak, eguraldi kaxkarrarekin baina moldatu ginen. Azkeneko bi partiduetan pasaren arraztoa aurreratu genuen”.


Umeetan (alebinak), 52 bikotek parte hartu zuten parte eta finalen: Oberenako Sarasibar- Santxez bikotea 18 eta 8 nagusitu zen Errekako Apezetxea-Agosta, ordu bat pasa iraun

zuen partidu gogor batean. Onena Andoni Sarasibar.

Haurretan (infantilak), Orozkoko Olaizola-Arbaiza ezin izan zuten Oiartzungo Sein- Aburuza bikotea irabazi azkenean 13 eta 18, onena Aburuza Oiartzungo atzelaria. Gaztetxoetan (kadeteak), Oberenako Oskoz -Cuairan gailendu ziren Gutierrez (Rioja)- Etxeberria (Lazkao) 18 eta 12. Hemen inork ez zuen espero Oberenako garaipena bainan partidu borobilla egin zuten eta aurkariak bere maila ez zuten eman. Onena, Cuairan.

Helduetan (seniorrak), finalean Oberena taldeko bi bikote oso ongi ezagutzen direnak. Partidu azkarra eta garaipena Ansa-Irurita bikoterentzat Garzia-Cordon I.aren aurka 22 eta 06. Garzia aurrelaria saiatu zen, baina aukera gutxi eduki zuen. Onena, Josu Irurita.

Eta, bukatzeko, Gazte mailan (Jubenilak) beste partidu gogor eta polit bat, azkenean Egiguren (Azpeitia)- Oliden (Añorga) bikoteak 22 eta 18 menperatu zuen Uribe (Gazteiz)- Etxeberria (Oiartzun) bikotea. Onena, Oliden. Hemen, Gazteizko aurrelariak bigarren partida zuen eta azkenean jaitsi egin zen. Nahiz eta eguraldi kaskarra izan jende asko hurbildu zen Gartzaronera aurtengo finalak ikustera”.



Peio Etxeberriaren debuta



Azaroaren 3tik aurrera Ultzamak pilotari profesional berria dauka. 19 urte betetzen zituen egun berean egin zuen debuta etxean, Larraintzarko pilotalekuan, eta lagun eta ezagunez bete egin zen frontoia partidurako.

Ikusmin handia zegoen Peioren debuterako, eta ilusioa ere handia zen. Pilotalekua bera ere polit-polita jarri zuten telebistaren etorrerarako, beste edozein pilotalekuri inbidia izango ez liokeen pilota-gaua izan genuen.

Bertan ziren besteak beste Peioren lagun taldea eta beste lagun batzuk kamiseta bereziekin, Ultzamako Buruzgain pilota eskola oso-osorik, Ultzamako alkatea, Aritz Begino Auzako pilotari ohia eta beste dozenaka ultzamar.

Urduri atera zen aldageletatik Peio, eta horrek emaitzan ondorioak izan zituen, baina klasea duen pilotaria ikusi genuen. Xabier Euzkitze ETBko estatariari balorazioa eskatu genion partidua amaitzean, eta hau da berak esandakoa:

“Ez du luzimendu handiko eguna izan, baldintzak ere oso zailak izan ditu. Gaur espero genuen atzean garbi nagusituko zela Rezusta, baina ez da nagusitu, galdu ere normalean galtzen duena baino pilota gehiago galdu du, eta horrek ekarri duena izan da Peiorentzat baldintzak askoz gogorrago izatea.”

“Bera ere urduri zegoen, ez du inspirazio handirik izan, baina debutak hala izaten dira, ez dira amestetan bezala ateratzen. Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena da inguru handiko mutila dela erakutsi duela, jendea erakartzeko dohaina baduela, ilusioa eta ikusmina piztu duela bailaran, eta horrek, nik uste, gehiago balio duela partidu bakarrean erakutsitakoa baino.”

“Kasta badu, dohainak baditu, eta bere maila ez da gaur erakutsi duena, gehiago da. Ez dago une honetan estelarretan jokatzeko moduan, baina hemendik aurrera lasaituko da, bere mailako partidak jokatzen hasiko da, eta ziur nago mutil hau luzaroan ikusiko dugula.”

Rap kontzertuak Basaburuan



Basaburuko Kultur etxea bete zen azaroaren 11n, larunbatarekin. Emakumeen gaineko indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Bermeoko “Marta & Herbalist” rap abeslariak, Iruñetik “Zirze” eta “La Chula Potra”, Gasteizko “La Omega”, Burlatako “Patricia Greham” blues abeslaria eta NX rock taldea egon ziren haien musika eskaintzen.

Gurean gutxitan ikusi ahal izan dugun programazio anitza eta interesgarria.

“Nekatuak baina pozik” zeudela aipatu zigun antolatzaileetako batek. “Oso giro ona egon zen”. Herriko biztanleak oso eskertuta egon zirela aipatu digute: “plazer handi bat izan da kontzertu hauek antolatzea eta guztien jarrerari esker, bailara txiki honetako Kultur etxea musikaren tenplu bihurtu genuen”. Musikarien papera ere eskertu nahi izan zuten: “oso profesionalak eta hurbilak izan ziren”. Bukatzeko, gogoratu nahi izan ziguten musikari guztiak emakumeak zirela: “Iraultza feminista izanen da edo ez da izanen”.

Zerbait aipatzearren, hemendik goraipatu nahi dugu “Patricia Grehamen” lana. Burlatar honek blues estiloko talde bat zuen lehen eta orain bere abestiak lantzen ari ditu zuzenean eta “El Drogas” musikariaren taldean ere koroak egiten ditu. Bere ahotsa, umorea eta eskenatokian erakusten duen jarrera azpimarratzekoak dira.

Gau horretako bideo batzuk gure webgunean ikusten ahal dituzu, gogoratu: www.ametza.eus



Uxue eta Ainhoa, Iraizozko beste bi artista

Ainhoa Zilbeti eta Uxue Monreal dira aurkeztu nahi dizkizuegun bi argazkilariak. Jauntsarasko Apeztegiberriko bentan argazki erakusketa jarri dute, paisaiak zein erretratuak. Ultzamarrak izanda, beraiekin hitz egiteko probestu dugu, haien argazkien zein afizio honen inguruan gehiago jakiteko.



AINHOA ZILBETI:

“Inguruan egindako argazkiak dira. Askotan ateratzen naiz argazki kamerarekin eta edozein leku probesten dut argazki batzuk egiteko. Apeztegiberrikoek erakusketa bat egitea proposatu ziguten, hortaz Ultzaman edo Ultzamatik gertu egindako argazkiak aukeratu nituen.”
“Sare sozialekin hasi nintzenean argazki oso politak ikusten nituen eta orduan hasi zitzaidan kuriositatea. Diru pixka bat aurreztu nuenean, argazki kamara bat erosi nuen eta orduan hasi nintzen saltseatzen, duela 4-5 urte izanzen zen hau.”

“Lagunei argazkiak egiten hasi nintzaian, eta haiekin batera paisaiei egiteko probesten nuen. Orain horretaz gain, rallyetara joaten naiz argazkiak egitera, hori ere nire beste afizio bat baita.”

UXUE MONREAL:

“Bukatu berria dut Salamankako unibertsitatean arte ederrak gradua. Erakusketan jarritako irudiak, 80 argazkiekin osatutako gradu amaierako lanaren zati bat dira. Kontatu nahi nuen gauza bakoitzari dagokion es-

zenatokia bilatuz, Salamankan, Zumaian eta Ezkaban egin nituen argazki hauek.”

“Nik uste betidanik izan dudala argazkilaritzako afizioa, txikitatik, gurasoek kamera uzten zidaten orotan, nirekin neraman lagunei edo inguruan neukan edozeri argazkiak ateratzeko.”

“Argazki mota guztiek daukate haien interesa, baina niri erretratuak dira interes gehiena pizten didatenak. Pertsonen gorputzek eta hauetan sortzen diren formekin jolastea dut gustuko; argia, kolorea eta mugimendua bezalako elementuekin ere nahasiz.”

Muskizko Itsasonean Iñaki Behorlegi eta bere ikasleen erakusketa

Itsasoneko ganbara edukiz betetzen ari da gutxika, eta oraingoan koadro erakusketa bat izan dugu. Iñaki Behorlegi, Imotza etorritako artista mexikarrak margotutako koadroak dira gehienak, baina bere ikasleek egingakoak ere izan dira bertan erakusgai.

Erakusketarekin batera jatekoa eta edatekoa ere izan zen asteburu osoan iraun zuen erakusketan.

Iritzia: “Ondo maite zaitut”

Ondo maite zaitut» esanaz agurtu nuen lehengoan lagun bat. Sorpresa keinua. Irri-barrea. Besarkada. Pentsatu barik irten zi-



Miren Amuriza
BERRIA egunkarian

tzaidan, espresio polita iruditu, eta non gogoratzen dudan neure burua mantra baten antzean «asko maite zaitut, ama» kantatzen. Zenbatez gehiago errepikatu, zentzu gutxiago topatzen nion, ordea: «asko»?

Ez da gradu berekoa, noski, inguruan ditugunekiko senti dezakegun afektua: norbaiti kariñoa eduki diezaiokezu, estimatu egin dezakezu, miretsi, gustuko izan, maite... Maitatzea gradu bat da bere horre-

tan; maite duzu edo ez. Ala inor maitatu daiteke gutxi? Beraz kontua ez da zenbat, baizik zelan. X-k askotan esaten dio I-ri bikotea (izan zitekeen ama, edo lankidea, edo semea...) jeloskor samarra duela, posesibotxo, baina asko maite nau. Eta I-k erantzuten, asko ez, txarto maite zaitu.

Ondo maitatzea zaintzea da, ez itotzea; onartzea, ez aldaraztea, ez idealizatzea; bestearekin kritikoa izatea da, ez epaitzea; hobetu de-

zan motibatzea, ez eskasa dela sentiaraztea... Ondo maitatzen ez da jakiten, ikasi egiten da; ez bizikletan ibiltzen lez (behin eta betiko), ezpada biolina jotzen bezala, etengabe praktikatuta eta lantzean behin desafinatuz. Belarri txarra duenak ikasten du, entzuten ez duenak nekez.

«Maite zaitut»-i azukre dosia jaitsi guran hasi eta ondo maitatzea biolina jotzea lakoa dela esaten amaitu, en fin...



Eltzaburuko ikazkina

Gogorra ikazkinaren lana... Egun, gazteenei galdetzen badiegu, ikazkin bakarra etorriko zaie burura, Olentzero, garai hauetan menditik jaitsi eta ikatza etxez etxe banatzen duena. Hain gazteak ez direnak Tasio ikazkinaz ere oroituko dira, duela 33 urte Montxo Armendarizek gidatutako filmean agertzen zena. Baina zaharrenei galdetuz gero, gure herrietako ikazkinak ere aipatuko dizkigute, haien gazte garaietan aritzen zirenak.



Urte asko dira ofizio hori galdu zela, baina Nafarroan Lana bailarako Biloria herrian mantendu egin da, bertako Miguelek 15-16 txondor egiten ditu, eta ikatz tona ugari dira saltzen dituenak. Baina aurten, urte askoren ondoren, txondor bat izan dugu gurean, Eltzaburun.

Urrian, herriko jende ugari elkartu zen elkarrekin txondorra egiteko, herritarrek duten whatsapp taldean abisua pasa baitzuten. Plaza prestatu (txondorraren lekuari plaza deitzen zaio, lehen mendian egiten zen, leku laueta, baina Eltzaburuko soro batean egin zuten oraingoan) eta auzolanean txondorra prestatu zuten goiz bakar batean, Karlos Agirre Iribarren ikazkinaren gidaritzapean. Batzuk txondorra prestatzen, eta beste batzuk hamaiketakoa prestatzen aritu ziren.

Bi astera, beste dozena bat elkartu ziren ikatza ateratzeko, eta 2.000 kilo izan ziren ateratakoak, sartutako 10.000 egur kilotatik. Honela esanda erreza ematen du, baina lan handia dauka txondorrak, eta Ana Mindegia Ilarregi eta Karlos Agirre Iribarrenekin elkartu gara prozesu osoa azaltzeko:

“Berak kapritxoa zeukan, beti gustatu izan zaizkio garai batean egiten ziren istorioak”, hala azaldu digu Ana Mindegia txondorra egitearen arrazoia. “Badira urte batzuk Biloriara goazela etxerako ikatza eros-

tera, eta kalitate handiko ikatza da. Miguelek egiten zuen lana ikusita, Karlos ikasteko gogoekin geratu zen”. Eta, aurten, ikatza nola egiten zuen ikasteko helburuz, maiatzean hiru egunetan joan zen Biloria, prozesua bertatik bertara ezagutzeko.



Iraila erdialdean egurra ekarri zuten Eltzaburura, Leteko arteen 25 tona egur. Eltzaburun pagoarekin egiten zen bere garaian, bertako basoetan zegoelako, baina askoz hobea omen da artearen egurra. Behin egurra etxean izanda, egurra moztu eta tamainaren arabera banatu egin zuen Karlosek, eta txondorra egiteko prest utzi, hiru geruzatan egiten baita, egur loditik estura.

Honela, auzolanean txondorra egiten hasi ziren herrikideak. Egurra geruzaka jartzen da lehenbizi, erdian egurrez egindako tximinia bat utzirik. Harriak jartzen



dira gero inguruan, eta ipuruak gainean, gero jarriko den agotza ez irristatzeko. Ondoren, beraz, agotzez estaltzen da egurra eta haren gainetik lurra. Behin eginda dagoenean, puxkak botatzen zaizkio tximiniatik, eta azkenik txingarrak. Hamarretakoa egiteko erabili zituzten txingarrak izan ziren bota zizkietenak, janarekin indarrak hartu ondoren. Bilorian ere, gaur egun erabat erdaldundua dagoen inguruan, “betegarri” esaten diete gainetik botatzen zaizkien puxkei, eta hainbat tresnari ere euskaraz deitzen diete. Miguel bera 5 alditan joan zen Eltzaburura Karlosi laguntzera.

Hurrengo egunetan, gau eta egun txondorra zaindu beharra dago, lan nekeza da. Surik hartzen ez duela bermatzea da helburua, egurra egosi egin behar baita, ez erre. Tiroa irekiz eta itxiz ere joan beharra dago. 10 egunetara txondorra “freskatu” behar zen eta erabat itzali, handik 3 egunera ikatza ateratzeko, eta oraindik ere su txiki batzuek jarraitzen zuten zenbait egurretan, baina ederki egin zen ikatza.

Egur asko oso osorik atera ziren ikatz eginda, nahiz eta gero hautsi behar diren zakuetan jartzeko. Osotara 2 tona ikatz, orain saltzeko helburu dutena. Ikatz honek denbora asko irauten du sutan, eta ke gutxi ateratzen du, horregatik da hain preziatua sagardotegi eta erretegietan. Beraz, ikatza nahi duena pasa dadila Eltzaburutik.

Aspaldiko pasadizoak entzuteko ere aukera egon zen. Karlosek, esaterako, bere aitatzik ikatza egiten zuela jakin zuen. Eltzaburuko beste biztanle batek, Antonio Narvaezek ere lan egin zuen txondorretan. 18-20 urte zituela izan zen hori, baina 15ekin joan zen rantxero mendira. Aitari laguntzen aritzen zen orduan, mendian, bai txondorrean zein egurra ateratzen.

Eltzaburuko Calzadok ere izan zuen berea, mandazain ibiltzen zelarik, gizon bat aurkitu zuten erabat zikin, arropa hautsita, ahul... eta honela esan omen zioten: “Gizona! Uztak bakian txondor hori eta joan hadi txabolara!” Handik lau egunetara, gizona hilik aurkitu omen zuten bere txabolan, txondorra zaintzen ibiltzeagatik ahuleziaz eta gosez hila.



Hirugarren istorio bat ere badago Eltzaburuko txondorrekin lotua: Txurruka zahartuta zegoelarik, txondor ugari prestatu omen zituen, baina piztu gabe utzi zituen prestaketa lan guztia egin ondoren.



Asko ziren ikazkin aritzen zirenak garai hartan, baina egun ia galdurik dagoen ofizioa da, eta gehiago da afizioa ofizio baino. Karlosek behin egin du, eta azaroa amaitu baino lehen bigarrena ere egitekoa da, egurra soberan baitauka oraindik, baina zeinen lan gogorra den sufritu du, eta diruz juxtu ordaintzen da egurra eta lana. Hala ere Eltzaburuko lehenbiziko txondor egun bezala izendatu du baten batek jada, ikusiko dugu datorren urtean gehiago dugun...

Ofizio zaharrak ditu afizio Karlosek, eta hala esan digu: “Su kontua gustatzen zait, forjarekin zerbait egitea pentsatzen ari naiz orain”.







Sasuan **bertsolaria** (Eugi-Aritzu-Auza) (II)

Maiatzeko zenbakian atera genituen Antonio Ziaurritz Buruko bertsolariak 1933. urtean edo eman zituen bertso idatzi batzuk. Garai hartan Auzan bizi zen eta 73 urte zituen. Esan genezake, beraz, atzekoz aurrera ibili garela, bere bizitzako azken bertsoekin. Apropos egin genuen hau, bertso hauek ekarriz hona denon aho gozagarri, Antonioren bertsokera hain ederki azaltzen duten bertso dramatiko xamarrekin gainera.



Etzolaxar. Izenak dioenaren kontra, borda handi eta berri samar bat da. Oso dotorea.XIX. mendearen erdialdera Erramuneko oraingo nagusiaren birraitatzik egina edo berregina. Orain berritzen ari dira. Aitzakia bakarra: tokia da oso malda.

EUGIN JAI O

Horrela bada, hasieratik hasteko, esan beharko dugu, bertso horietan azaltzen den Auzako bertsolaria ez zela Auzakoa nahiz bere bizitzaren urte aunitz bertan egin eta hil ere bertan hil.

Eta goitizenez ere ez zela Sasaun, Principe de Vianan jarri zuten bezala eta Ultzaman deitzen zioten bezala, baizik Sasuan. Izengoitia jaio zen bordari zor zion, Eugiko *Sasuan* bordan jaioa baitzen. Eta borda honen izena hurbilean duen erreka batetik dator (1).

Sasuan, 1859ko abuztuaren 5ean jaioa zen Ultzamako Udaleko paperetan okerrik ez badago. Hurrengo urtean jaioko zen Txirrita handia. Gurasoak Pedro Francisco eta Maria zituen, lehena Eugikoa eta bigarrena Aldudekoa. Zazpi anai-arreba ziren, denak neskatoak Antonio bertsolaria izan ezik.

Baina Ziaurritzarrek Sasuanen ez zuten urte aunitz eginen, maisterrak izaki eta Eugiko bertako *Prontxen* (Probintzianoaren borda) bordara pasatu baitziren bizitzera.

Gure Antonio ere bere bizitza guzian maister izanen zen, eta alde batetik bestera ibiliko zen. Hori bai, sortetxeko izena eraman zuen betiko: Sasuan.

ANUEKO ALDIA

Ustez behintzat, Eugiko Prontxen bordatik Aritzura alde egin zuen familiak 1880ko urteberri-rako. Antoniok 21 urte zituen ordurako.

Urte aunitz baino lehen ezkonduko zen, Lanzko elizan, 25 urtetan, Maria Blasa Oianburu Iraizotz lantzararekin, adin berekoarekin. 1884ko urriaren 13a zen. Andrea Lantzen sortua eta bertan bizi zena, eta bere gurasoak Jose Maria eta Tomasa ziren, hauek ere, biak Lanzkoak.



Aritzun jarriko ziren bizitzen eta umeak laster etorriko ziren.

Eta herri honetan bertan sortuko dira zazpi seme-alabetatik sei. Zein etxetan jaio ziren ez da erraza jakitea.

Etxe batean baino gehiagotan bizitu baitziren us-tez. Tartean gainera, 1901-1903 artean, Olaguen bizitu ziren, gero, berriz ere Aritzura i-tzultzeko. Tarte horretan seigarren umea jaio zen, Juliana, eta bertan hilen zen bi urtetan.

Zaharrenetik gazteenera hona zein ziren: Micaela, Jose, Magdalena, Basilio, Graciano, Juliana eta Simon. Dena dela, *Etxolaxar* deitu bordan bizitu zirela behintzat badakigu (2)

Bere ogibidea nekazaria dela jartzen du papere-tan.

Gurasoak Aritzun hil zitzaizkion Antoniori, aita 1888ko maiatzaren 20an eta ama 1894ko uztaile-ren 15ean.

Oraindik familia hazten ari zenean ezkondu zi-tzaion alaba zaharrena, Miceala, 18 urtetan La-baiengo ikazkin batekin, Jose Juan Jaunarena Luberriaga, eta Aritzuko Etxolaxarren jarriko ziren bizitzen. 1908ko ekainaren 30a zen. Hauen ume zaharrena, Antonioaren lehen biloba, Sinforosa dei-tua, bertan sortuko zitzaien.

Baina laster, bi familiak alde eginen zuten bertatik Ultzama aldera. 1910. urtean izanen zen toki al-daketa.



Hona hemen bi bertsolari handi: Txirrita (ezkerrean) eta Saiburu. Antonio Ziaurritzen adinkidea zen Txirrita. Argazkilaria: Indalecio Ojanguren.

(1) Don Emilio Lintzoain kalonjeak, ia bere apez bizitza guztia Muskitzen eman duenak kontatu dizkigu hainbat xehetasun, ez berak ezagutu zuelako, baizik eta Eugikoa izatean bertako gora-behera asko ezagut-zen duelako. Guraso eta osaba-izebengandik ikasiak.

(2) Aritzuko Beltraneko Eusebio Zilbetik kontatua.

HIZTEGIA:

BERTSOKERA: bertso moldea.

GOITIZENA EDO IZENGOITIA: apodo

TXIRRITA: Bertsolaririk famatuenetako bat.

Maister: Maizter, inquilino.

Ogibidea: Oficio.

Sortu=jaio

Kalonje= canónigo

Xehetasun=detalle



AITA DAMASO INZAK BILDUTAKO BERTSOAK GERRA AURREAN ETA GERO TXILETIK IGORRIAK, BERTAN MISIO LANETAN ZEBILELA 1967. URTEAN.

Hona hemen Antonio Ziaurritzek bedera-
tzikoan Ezkurra bere adiskideari bota dion
desafioa. Hau eta beste, bertsotan maiz arit-
zen ziren dirudienez eta, oraingoan desafioa bota
dio. Eta ber-tso mota aukeratzeko esaten dio, nahi
duen neurrikoa hartzeko. Eta tokia ere aukeratzeko
agintzen dio: Ilarregi edo Suarbe, hau da bide erdira
atera-tzeko. Nor zen Ezkurra? Ilarregin Arotxenean
zuten Ezkurra deitura.

Suarben ere garai batean Ezkurra bat bizi izan zen.

Baina ez dugu pentsatzen hauetako inor denik,
Suarbekoa izatekotan adinez gazteegia deritzogu
eta Ilarregikoa ere ez zitekeen izan. Zergatik? Anto-
nio Auzan bizi zen eta hemen bide erdira ateratzeko
esaten dio, Ilarregira edo Suarbera; beraz ezinekoa
da.

Orokietatik eta Auzatik bide erdira daude bi herri
horiek. Beraz pentsatzen dugu, Pedro Juan Ezku-
rra Azkue izan zitekeela, Apezeneko nagusia, adi-
nez ere paretsu zebiltzan eta...(1935. urtean hila).



Liburu bateko
fotografian ageri
zaigu Sasuan
zaharra, almutea
dantzan. Almutea
baino apalagoan
nahiago dantzatu,
badaezpada, eta bi
adreilu jarriak ditu
hanka azpian.

Enderaz ta
uskeraz
bederatzi
puntutan
berrogei bertso
dauzkit
nik nere asentutan.
Memoriz aritzen
naiz
ni oien kantutan;
ez Ezkurra bezala,
papera eskutan.
Aditu t'ondoan
ez artzea gogoan...
Pensatzen ez
nun zanik
olakoik munduan;
neri aztuko zaizkit
kanposantuan.

Ezkurra: ola porfian
deus ez gera ari;
amorioz kar zagun
nai bozu elkarri;
prendaik artzen
eztioguleik
batek bertziari.
Si quiere usted a
Juarbe,
y sino a Illarregui.
Bide erdire etorri,
testigua karri,
zein giran ongi ari,
kopletan elkarri.
Sinialatu egune;
ta torriko naiz ni.

Puntuak ere,

Ezkurra
Elegi detxazu;
bat, bi, iru, lau bos-
tian,
seiean, nai bauzu;
zazpi, zortzi,
bederatzi,
amar or daukazu.
Era ona daukazu,
nai zunik in zazu,
ortxe kus dezazu,
eleji dezazu,
aditu nai bauzu,
nere faltarik beintzet
izango ez dezu.

(1) Trabesas izain
gerala,
Aren aldekoak,
gaztigatu dirade
nere kontrarioak;
ez nago, ba, ni ere
batee gabekoa;
ba-ditut bai nik ere
naiko metituak,
gizon adituak,
diruz aunditsuak,
eta aberastxuak,
zuk izain tuzun
bañan
geiagoxokuak.

(1) Azkeneko ontan:
Trabesak izain dira-
la bear luke.

OHARRA:

ETA AITA DAMASO INTZAK OHARTARAZTEN DIGU
NOLA "AZKENEKO BI ESKUETAN AMAIRU BERSO AGIRI

DIRALA, AMALAU BEARREAN" ETA BERTSO HAUEK
IKASI ZITUENAREN ERRUA IZANEN DELA.

RUBEN RUIZ, ULTZAMAKO IRAKASLEA ETA IDAZLEA:

“Liburuan orduko iragarpen eta egungo errealitatearen arteko **konparazioa** egingo da”

Ultzaman irakasle lanetan dugu duela urte batzuk eta Basaburuko biztanlea da aspaldi Ruben. Azken asteetan argitara eman duen liburuari buruz solas egin dugu harekin.



Liburua argitaratu berri duzue, nola izan da prozesua?

Tira, horrelakoetan prozesua luze samarra izan ohi da, nire kasuan behinik behin. Lehenengo eta behin, ipuinaren ideia izan zen: maisu etorkizun-igarlearena. Ondoren, ipuina idaztea etorri zen, atalez atal. Ondoren ohiko zuzenketak eta berri-rakurketak etorri ziren. Gero, hurbileko eta konfiantzazko lagunei irakurtzera eman nien, haien iritzia eta ekarpenak egin zitzaizkion. Hori guztia egin ostean Erein argitaletxera bidali nuen, haien iritzia jakiteko, eta dra! Baietza eman zioten ipuinari. Orduan, azkenik, pare bat ilustratzaile proposatu nizkion, eta zorionez horietako batek, Maite Mutuberria Elzaburuarrak egin ditu ilustrazioak. Zoragarriak, bistan denez.

Zein da gaia?

Lehen aipatu dut, baina luzatuko naiz apur bat gehiago. Maisu baten amak maisuaren gaztetako gela moldatu nahi du, eta hamaika poltsa prestatu dizkio bere gauzekin: kirol eta musika aldizkariak, hainbat gutun eta postal —bat edo beste maitasunezkoak—, argazkiak... Baina, haien artean, aspaldiko musika kasetekin batera, beste zinta bat aurkitu zuen: “1985-1986 ikasturtea”, jartzen zuen. Zer gordeko zuen kasete horrek? Tira, garaiko haur bakoitzari maisuak, jolasti, igarritako etor-

kizuna jasoko da. Liburuan orduko iragarpen eta egungo errealitatearen arteko konparazioa egingo da gero; eta hori da ideia nagusia. Jakina, maisuaren iragarpenak eta haur bakoitzaren egungo egoera ezagutzeko liburua irakurri beharko da.

Nolako lan dinamika izan duzu?


Uff! Ez dut lan-dinamika zehatz bat. Ez naiz literaturatik bizi, jakina da. Hortaz, ideiak hainbat hilabetetan izan ditzaket buruan biraka. Eta horrelako batean, ongi ondu ditudanean, esertzen naiz idaztera. Hasten naizenean ere mantso egiten dut. Normalean gauzez egiten dut lan hori.

Maiteren ilustrazioei buruz zer?

Maiteren ilustrazioek badute zerbait erakartzen nautena. Egia esan ez dakit zer den azaltzen, baina oso gustukoak ditut. Horrela, lehen aipatu bezala, argitaletxeari proposatu nizkion pare bat ilustratzaile, eta horietako bat Maite bera zen. Zorionez Maitek baiezkoa eman zion Erein argitaletxeari eta... lan bikaina egin du, beste behin ere: elegantea, iradokitzailea, testuarekin bat datorrena... Ni oso pozik geratu naiz emaitzarekin.

Non egongo da salgai?

Bada, ohiko liburu-dendatan eta interneten.
<http://www.erein.eus/libro/oihartzun-isilak>



"Herrilana"ren bidez **Erribera** euskalduntzeko **Errigoraren** kanpaina berria

"Trabalenguas" horietako bat ematen du titularrak, herria gora eta behera. Baina hitz joko xume horrekin asko adierazi nahi dute "Errigorako" kideek. Aurreko urtetan ere izan dugu gurean kanpaina hauxe bera, baina ez dakienarentzat, Nafarroako Erriberako euskalgintza laguntzeko dinamika da "Errigora", inguru horretako ekoizleak ere lagunduz, eta ekoizle horien produktuekin osatutako kutxak saltzen dituzte, gero bildutako diruaren zati bat Erriberako euskalgintzari emateko.



Zirkulua ederra da, denok ateratzen gara irabazle: ekoizleek Euskal Herri osoan saltzen dituzte produktuak, guk kalitatezko produktuak jasotzen ditugu, eta Erriberan euskararen aldeko pauso berriak ematen dira. Hala ere, honek guztiak, engaiatze handia behar du, eta herrilana bidez egin dute beti, baina are gehiago aurten.

Zubi-lana ere aldarrikatu dute aurten, hau da, ekoizleekin, Erriberarekin, inguru euskaldun eta

euskalduntze bidean dauden arteko zubiak eraikitzea; hori du xede Errigorak.

Kutxak produktuz betetzea auzolan erraldoiaren bidez egin dute Ablitasen azaroaren hasieran. Lehenengo egunean Biana, Lodosa eta Tuterako ikastolako ikasleak izan ziren protagonista, eta Porrotxekin batera aritu ziren kutxak osatzen. Bigarrenegun Errigoran parte hartzen duten ekoizle guztiak aritu ziren, eta hirugarren eta laugarrenegun Euskal Herri osotik joandako dozenaka boluntarioren lanaren bidez egin zuten falta zena.

Errigora Ultzama aldean

Gurera ere iritsi izan da urtero Errigora kanpaina, eta kutxak eskuratzeko aukera izan da. Zerrenda batean izena eman eta kutxa jasoko dugu, azaroaren 14a baino lehen egiten badugu. Basaburuan Apeztegiberriko dendan eta Aizarozko ostatuan daude izena emateko zerrendak, Ultzaman Larraintzarko bentako ostatuan, eta Lekunberriko AEK euskaltegian ere izanen dugu eskuragai.

Horrekin batera Amaralar eta BKS kontsumo sareen bidez eskuratzeko aukera ere egonen da.



ZIGOR GARTZIA "ZIAN", AIZAROSKO BIZTANLE OHIA

"Asia deskubrimendu handia izan da niretzat"

Bizikleta hartuta, Himalaya alderik alde zeharkatu zuen 6 hilabetetan. 5.800km, hiru herrialde (Pakistan, India eta Nepal), eta aberastasun kultural, natural, eta pertsonal ikaragarria. Aizarosko ostatuan hitzaldia eman zuen bertako biztanle ohiak azaroaren 3an esperientzia honen inguruan, eta guk ere elkarriketa egin diogu.



mugan zeuden arazoak kenduta ongi ibili nintzen. Errepideak ez zeuden gaizki, eta seinalizazioa jarraituz erraz mugitzen nintzen, baina mendiko errepideak okerragoak dira noski. Kamioi asko igarotzen dira eta leku batzuetatik zaila da mugitzea, baina ohitu egin nintzen, eta lasai joanda ez dago arazorik.

Eta bizikletak arazorik eman zuen?

Bai, baina espero baino gutxiago. 5.800 kilometro dira errepide txarretan barna, ordu askotako jaitsierak (40 edo 50 km-ko mendateak), ibaiak eta abar igaroz, eta noski kateak, gurpilek eta balaztek arazoak eman zituzten, baina batzuetan erraz edo beste batzuetan gehiago bilatuz, beti lortzen nuen konpontzea.

Kontraste handiak aurkituko zenituen...

Hasteko, kontraste kulturala ikaragarria da: etniak, erlijioak... Lurralde musulmanean hasi nintzen, eta bat-batean igaro nintzen lurralde budistara, handik hindura. Eta aurpegietan zein janzkeretan etniak ezberdindu egiten nituen, hizkuntzak ere dozenaka erabiliko zituzten. Eta parajeei dagokienez, oso leku ezberdinak, eta denak ederrak.

Bidaia xelebrea. Bizikletaz, Himalaya mendikatean, bakarrik... Nolatan?

Bai, banuen gogo halako zerbait egiteko, eta lagun bat eta biok hainbat plan pentsatzen aritu ginen. Plan hau suertatu zitzaigun azkenik, eta 6-7 hilabeteko tartea nuenez joatea erabaki nuen, nahiz eta lagunak azkenean ezin izan zuen. 2015eko uztailetik 2016ko urtarrilera arte ibili nintzen inguru hartan.

Plan guztia etxetik eginda joan zinen?

Ez, hasierako tartea besterik ez. Delhira hegazkinez joan, eta handik Pakistanera, Kaxmir eskualdera. Han hasi nintzen bizikletaz Iruñeko bikote batekin, Shimla (India) hiria helburu. Hala ere, nik lasaiago ibili nahi nuen, denbora gehiago bainuen, eta herrietan gelditu, jendea eta inguruak ezagutu nahi nituen; hala, bigarren astean bakarrik geratu nintzen. Hortik aurrera, hainbat herriren erreferentziarekin, eta bertan ezagututako biztanle zein bisitarien emandako gomendioei jarraiki Butango mugaraino iritsi nintzen.

Handik mugitzeko arazorik izan zenuen?

Politikoki nahiko bero dagoen eskualdea da. Kaxmir inguruko gatazka Pakistanen, India eta Nepalen arteko gatazka amaigabeak... niri momenturik gogorrean ezagutzea egokitu zitzaidan gainera. Baina

Lekuren bat nabarmentzekotan, zein?

Ezin bat nabarmendu, asko dira, eta oso ezberdinak. Bizikletaz ibiltzeko India leku ederra da, 5.000 metro baino altuera gehiagoko mendateak igarotzea ikaragarria da, eta jendea ere ikaragarria da bertan. Eta Nepal ez da hain ona bizikletaz ibiltzeko, baina bertan egindako bi trekkingek (Annapurnako eta Everesteko kanpamendu basera) paraje izugarriak ikusteko aukera eman didate.

Mendizale batentzat 8.000m baino gehiagoko 8 mendi ikustea handia da.

Lurrikara igaro berri zen Nepalen, nola aurkitu zenuen?

Turistarik ez zebilen ia, baina egoera ez zen komunikabideek esaten zuten bezain txarra. Bailara batzuetan bai, baina besteetan ez zuten arazo nabarmenik, eta komunikabideek kalte ere egin zieten, turismoa askoren ogibidea baita, eta momentu gogorak bizi behar izan zituzten.

Hurrengo planik baduzu?

Zerbait pentsatzen ari naiz, baina momentuz ez da posible. Ikusiko da nora joanen naizen, baina Asia deskubrimendu handia izan da niretzat, eta itzultzeko gogo handia daukat.

PILAR ALDAIA, AUZAKO BIZTANLEA ETA JUBILATUA.

Duela hilabete batzuk aipatu genizuen noizean behin etxeko langile emakume bat ekarriko genuela atal honetara, nolabait, beti etxean egin den lan hori balorean jartzeko eta duintzeko pausu txiki baten modura.

Gaurko honetan Auzako Pilar Aldaiarekin egon gara tertulian gustura Xagu txakurra alboan duela. Denetaz hitz egin dugu eta hona laburpentxo bat.



GOIKOETXEA EDO KOKOTXEA?:

XVI. mendeko etxean egon gara lasai-lasai solasean, goizeko eguzkia leihotik sartzen zela. Denbora aurrera joan ahala eraikinak bizi izan dituen aldaketa handiei buruz hasi gara: “Hasieran sukaldea, hazienda eta logela zeuden eta goian, sabai. Gerora, Oroketako guda zela eta, garaiko aitatxi herriko alkate zela eta, soldaduak mantentzeko ardiak eman zituen. Esaten zuten geratu zirela “ez artalde, ez diru”. Hala ere, azkenean, diru hori ko-bratu eta “goitiko obra egin zuten, hasierako forma eraldatuz”.

Auzan mundu guztiak Kokoetxea deitzen dio etxeari baina “eskritoretan eta, Goikoetxea agertzen da. Goitikoetxea alboko etxea da, badu zentzua kontuak. Kartetan eta halakoetan beti Goikoetxea jartzen dut”. Zalantza argitua beraz. Halere, gerora argitu digu Pilarrek, postariaren etxeokan jaiotakoa da bera: “Ni kanpokoa naiz” dio umoretsu.

LAN MUNDUA:

Emakume asko bezala, Pilar ez da geldirik geratu bere lan bizitzan: “Behiak etxetik kanpo 1974. urtean eraman genituen. Etxea moldatzeko beharrezkoa zen jada erabaki hura. “Etxea botatzeko aukera izan genuen hor, baina konpontzea erabaki genuen, sustraiak hemen zeuden, herri erdian gainera... zer edo zer ematen zidan.

Elkarteak 2002an egin genuenean lekutu nintzen ukuiluan laguntzen. Aldaketa handia izan ziren niretako. Haurrak ikasten ari ziren, eta ostatu-tan lanean jarri nintzen; Auzako ostatuan lehenago eta itxi zutelarik Eltzaburuko Sasondora pasa nintzen. Orain jubilatua banago ere, 5 bilobak zaintzen ditugu: gure burua seme-alabekin batera koordinatzen dugu lana, ikasketak edo haurren egoera dela medio”.

EUSKARA:

Luze egon gara gure hizkuntzaren egoerari buruz hitz egiten. “Nire seme-alabak eskolara Joan ziren erdara jakin gabe”. Gerora bizitzak hamaika buelta ematen ditu eta orain herri eta hiri desberdinetan daude bizitzen eta bertako hizkuntz egoera zaila da: “Alabaren etxera joaten naiz bilobak zaintzera eta Sarrigurengo eskolan denetarik ikusten duzu. Iruñeko Uhartan beste alaba bizi da eta oso herri atsegina da hizkuntz giroari begiratuta”.

Ameriketako San Frantzisko hirian lehengusina bat du Pilarrek eta nahiz eta gurasoek beti semei euskaraz eta erdaraz egin haiek “ez dute ez euskaraz ez erdaraz egiten. Kaleko hizkuntzak manatzen du, esan zidan Kontxita lehengusinak”.

Elikadura **burujabetzarantz** pausoak

Landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna izan zen urrian, eta ekimen ugari burutu ziren gure bailaretan. Garrantzi gehien izan zuen gaia elikadura burujabetzarena izan zen, landa eremuko emakumeen biziraupen eta garapenerako ezinbesteko kontzeptua.



Basaburuan, Bilgune Feministak bi modutara jorratu zuen gaia: Mundu bat elkartaren argazki erakusketa jarri zuen Oihanzabal ikastetxean, munduko beste zenbait lekutan elikadura burujabetzarantz eginiko lanaren ingurukoa; eta hitzaldi bat ere antolatu zuten, Cristina Gonzalez mexikarra etorri zitzaigun, eta gai berak Mexikon zein egoera daukan azaldu zuen Aizarotzen.

Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolaturik, baratze tailerra egin zuten inguruko emakumeendako, eta maila teorikoan zein praktikoan aritu ziren Larraintzarko zentro zibikoan.

Larraitzarren bertan, ikastetxean, gai ugari izan zituzten hizpide, baina tartean ere elikadura burujabetza. Aritzu, Egozkue, Ilarregi, Gaskue, Orokieta eta Igoako 6 emakume bertaratu ziren, euren lanaren inguruan solas egitera.

Eta azkenik, Basaburuan, Basandereok antolatuta, emakumeen afaria egin zuten urriaren 14an, eta “Bi ero diskotekan” antzerkia ere izan zuten. Parte-hartze oso ona izan zen ekitaldi guztietan.

Azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Azaroan emakumeez hitz egitea dagokigu, baina beste era batean egiten dugu oraingoan, triste eta amorruraz. Izan ere, emakumeenganako indarkeriak ez du etenik, eta “Ultzama aldeak ezetz dio” kanpaina abian jarri du Mankomunitateak. Azaro osoan hitzaldi, pelikula, antzerki, kontzertu, tailer

eta bestelakoak egonen dira gurean. “Hormara” atalean duzue kartela.



Landa eremuko emakumeen inguruko datu zenbait

Nafarroako Gobernuak ere bere aletxoak jarri nahi izan du gai hauei dagokienean, eta emakumeen egoera jorratu du landa garapenerako programan. Nafarroako datu batzuk ere eman ditu, eta guk hona ekarri nahi izan ditugu:

- 2.000 biztanletik beherako herrietan, %47,4 dira emakumeak, 41.666 (Nafarroa osoan %50,5 dira)
- Landa eremuko emakumeetatik %31,5 daude Gizarte Segurantzaren alta emanda, eta %2,6 besterik ez dute nekazaritzan zein abeltzaintzan lan egiten.

RAWAN DIALLO, MUSIKARIA

“Abestien ordena edo erreperatorioa aldatzen dut **momentuan bertan”**



Gaur egun Nafarroako artisten artean dagoen ahotsik berezietakoa dugu Diallo senegaldarrarena. Iruñeko musika mugimenduan azkeneko urtean hainbat kolaborazio egin ditu, azkena, Eldhaji Endyae Polizia Nazionalaren eskuetan hildako hiritarraren egoera salatzen duen abestian. Larraintzarko ostiral kultural bat zela eta, gurera hurbildu zen eta harekin hitz egiteko parada izan genuen.

Nolako ikuskizuna egiten duzu?

Bakarlaria naiz, gitarra jotzen dut eta abestu ere. Aurkezten ditudan abesti guztiak originalak dira, ez dut bertsiorik egiten. Bakarrik banoa ere, badut musika taldea, kontua da Salamancan daudela eta hona etortzea pixka bat zaila dela...

Nola aukeratzen duzu erreperatorioa?

Leku edo herri batera ailegatzen naizenean jendea nola dagoen begiratzen, sentitzen, saiatzen naiz. Publikoaren aurrean aurkezpena egiten dudanean zer nolako erantzuna jasotzen dudanean ere nolabait neurtzen dut zer espero edo nahi duten. Hori ikusita abesti bat edo bestea aukeratzen dut, abestien ordena edo erreperatorioa aldatzen dut momentuan bertan.

Ze musika estilo jorratzen duzu?

Denetarik egiten dut, egia esan. Azken hamarkadetan gailendu diren estiloak lantzen ditu nire kantetan: Pop, Hip-hop, reggae, afro... Halere, ahotsa beti nahiko “afro” geratzen zait, ezin sustraiak ahaztu.... Abestien egituretan ere ez dago estilo zehatz bat; hasiera rock izanik ere gero rap zati bat izan dezake...

Zenbat denbora daramazu hemen?

Bi urte jada. Senegalgo Dakar hiriburutik Iruñera zuzenean etorri nintzen bizitzera. Nafarroan egoteaz gain, dezente mugitu naiz estatuko beste lekuetatik. Lehen aipatu bezala, Salamancan musika talde oso bat daukat.

Zer moduz hemendik?

Ongi, moldatzen naiz. Egia esan, ez da erraza izan aurrera ateratzea. Hasieran nahiko galduta nengoen, zerotik hasi behar zara leku eta kultura berri batean... Horretaz gain, nire herrialdean musikari profesionala nintzen, txikitatik hasi nintzen musikan murgiltzen eta hona ailegatu eta jendea nola funtzionatzen duen ikasi arte, zeure sarea eraiki arte... kostatzen da. Gaur egun pozik, lanean gustura nago ostalaritzan eta baita musikan ere. Hemen noizean behin egiten ditut kontzertuak, eta Salamancan ere bai.

Beste musika proiekturen bat baduzu?

Tira, Salamancako proiektua hor dago baina pixka bat motel doa. Kataluniako lagun batekin ari naiz zerbait berri prestatzen, disko akustiko bat, gitarra eta pianoarekin batera. Ia bi urte Salamancakoekin grabatzen eta oraindik ez da argitaratzen... Nire kasa aurrera joan behar dut.

BADATOR ZOZKETA



SARI GUZIAK BANATZEN DITUGU

Baina, banatzen dituzue sari guziak? Hori galdetu zidan lehengo egun batez adiskide batek.

-Zergatik erraten duzu hori? Bai, bai, guk sari guziak banatzen ditugu. Eta sarituari bere saria etxera eramaten diogu gainera.

Hori da gure Zozketaren ezaugarrietako bat. Denak banatzen ditugu eta etxeraino eramane gainera (Txerrien kontua besterik da. Txerria nahi izaten dutenek berek jaso behar izaten dute guk esan to- kian. Eta beste sariren batzuk ere bai, tartak, esne- kiak...eta abar, horiek ere bai, galgarriak direlako norberak hartu behar ditu nahi dituenean, aurretik abisatuta)

Erran bezala, izan zortea eta etxeraino eramane dizugu tokatutakoa hurrengo astean, zu kezkatu gabe.

SAGUAK GAZTA JAN

Hala ere...

Iaz adiskide bati gazta egokitu eta hilabete baten buruan gaztaz galdezka etorri zitzaigun. Arraioa! Kontua laster jakin genuen. Bidean desagertu zen, saguak jan gazta osoa eta gizajoa batere gabe gel- ditu. Ai, ai, sagutxo horiek nolako bromak egiten dituzten! Etxeko sagutxoak jakin sariaren berri eta bidera atara...

SARI AUNITZ ETA BIKAINAK

Aurten sari gehiago eta hobeak. Hori da urtero es-

aten duguna. Eta aurten ere hori da esan dezake- guna. Iaz 124 sari banatu genituen, 124 sari eder, batzuk bikain-baikainak, 10 txerri, 10 axuri...eta 3 sari berezi-bereziak. Jendea harritzeko modu sa- riak azken hiru hauek!

Aurten ere sari gehiago izanen ditugu.

HIRU BIDAIA

Eta gehiago dena, aurten gehiago izateaz gain, hiru sari bikain zozketatuko ditugu: asteburueta- rako hiru bidaia eder. Orain artio ez genuen bidaia- rik zozketatu. Eta hiru bidaia izanen dira gainera.

Ea nori egokitzen zaion bidaietako bat. Nahi du- zunean eta nahi tokira joanen zara. Nora eta noiz, zure esku utziko ditugu.

Zorte on!




Urtebetetzeak




LUKEN




ARGIA ETA IREBER



OLATZ



INTZA



BEÑAT



MANEX



EKI, MARTA, LUIS



UNAX



ILARGI



NAHIA

Basoak dira ala **erregaia** da?

Portugal eta Galizian gertatu diren suteak erraldoiak izan dira. Nola gaude hemen? Etxeko lanak egin al ditugu? Politikak ongi kudeatzen al du egoera? Juanillo Markina adituarekin hitz egin dugu eta hona zenbait klabe.

NAFARROAN, ONGI

“Beste lekuekin alderatuta”, ongi. Markinak azaldu digunez “irailean euri nahikotxo bota zuen eta, abuztuan iparra” sartu zenez, hezetasuna egon da. Orokorrean, 300 sute eta sute-hasiera inguru izan dira, “oso kopuru txikia da hori beste lekuekin alderatuta”.

Nafarroan bi klima ditugu iparraldekoa eta hegoaldekoa. Iparraldean, suteak arriskutsuak izaten dira neguan, iratzea lehorra egoten da, zuhaitzek hostoak galtzen dituzte eta nekazari eta abeltzainek sastrakak erretzen dituzte. “Iaz, oso hektarea gutxi erre ziren: Izaban, 100 hektarea mendian; Abodin, bertakoek su eman eta 70 inguru erre ziren; eta Urrizateko natura erre-serban 200 hektareako sutea egon zen.

Hegoalde partean, berriz, udan izaten da arrisku handia. “Egia esan, zorte faktorea ere bada. Iaz 100 sute inguru gertatu ziren, adibidez, Tafallako sutea, auto batetik botatako zigarrokina eraginda.

PREBENTZIOA

Nafarroan lanketa ona egiten dela dio Juanillok. Belarrak erretzeko baimena eskatu behar da, eta suhiltzaileak zaintzen egon behar dira.

Asko aurreratu da kontu honetan: lehen nahi zuten momentuan egiten zuten eta gaur egun askotan suhiltzaileek egiten dute eta askoz eraginkorragoa da. Bestetik, suhiltzaileak hasi dira kontrolpeko suteak egiten, batez ere pinudietan, basoari “erregaia” kentzeko. Esperimentazioa da. Erregairik gabe, zuhaitzen beheko partea ezin erre.

SUA EKOSISTEMETAN:

Gizakia agertu baino lehen suteak izaten ziren, eta naturan bere funtzioa betetzen zuten. Suteek naturan barietate berriak sartzeko aukera ematen du. Zenbait zuhaitzek suaren tenperatura behar dute hazia irekitzeko, Sekuoia eta zenbait pinu, adibidez.

Biodibertsitatea eta komunalak

Nafarroan betidanik herrilurrak egoteak eragin handia izan du basoaren aniztasunean, eta horrek suteen kontrol naturalean: hemen pago eta haritz asko egonik landaketa berri gutxi egin da. Galizian, adibidez, lurra pribatizatua dago, paisaia “mini-fundioz” beteta dago: “Etekin ekonomiko handia bilatzen da. Zuk 5 hektarea pinu dituzu eta bizilagunak beste pinu eremu bat”.

LEGEDIA ETA ESPEKULAZIOA, ZER?

Lurraren birkalifikazio legean eginiko aldaketak direla eta “oso zaila” ikusten du adituak espekulazio ekonomikoaren bidea egotea. “Oso baldintza bereziak gertatu behar dira. Orokorrean, suteen arrazoiak barne gatazkak (abeltzainen interesak), eta Galizian lanaren inguruko espekulazioak izaten dira: poliziak harrapatzen duen jendea, batzuetan, udako suteen aurkako langileak eta halakoak izaten dira.

KLIMA BEROTZEN ETA HERRIAK HUSTEN

Okerragora doa klimarena. Geroz eta beroago eta geroz eta lehorrago. Bestetik, garrantzia handia du herrien hustutzeak ere: artzaintza eta jendea dagoen lekuetan bideak, sastrakak, sasiak... garbitzen eta mantentzen dira, besteetan, erregaia bihurtzen da basoa.



2017ko IRAILEKOA. GURE ALDERDIAN IZAN ZIREN JAIOTZAK, EZKONTZAK ETA HERIOTZAK:

JAIOTZAK

ULTZAMA

URRITZOLA

Julen Morrondo Lopez, Alvaro eta Mariaren semea, Urritzolan sortu zen 2017ko irailaren 10ean.

EZKONTZAK

ANUE

OLAGUE

Alberto Manuel Dieguez Fernandez eta Silvia Gubia Urdanitz, azken hau Olaguekoa. 2017ko irailaren 2an ezkondu ziren. Madrilen biziko dira.

ULTZAMA

ELTZABURU

Aritz Oitz Villanueva eta Laura Herranz Oitz, biak Eltzaburukoak. 2017ko irailaren 23an ezkondu ziren. Eltzaburun biziko dira.

SUARBE

Unai Altuna Villanueva, *Polloneko* bordakoa eta Laida Hualde Saint Esteben, *Luzaidekoa*. 2017ko irailaren 2an ezkondu ziren. Suarben biziko dira.

Mila zorion ezkonberriei.

HERIOTZAK

ANUE

ETSAIN

Sabino Ripalda Agorreta, irailaren 9an, *Jaidia* etxean.

BASABURUA

BERUETE

Ignacia Etxarri Lopez, irailaren 6an, *Peruskeneko* etxekoandre zaharra.

JAUNTSARATS

Francisca Sasturain Alberro, irailaren 28an hil zen Gerendiaingo Xahartegian. Jauntsarasko Villa Sasturain etxekoa edo *Txokolateroren* etxea deitutakoa.

ULTZAMA

ALKOTZ


Felipa Hontoria Alonso, irailaren 10ean, *Sotozarreko* etxekoandre zaharra.

Gure oroimenean izanen zarete.

Heriotzak: Gure adiskidea Ignacia Etxarri beruetarraz gain, beste hiru lagun ere joan zaizkigu ixil-ixilean:

Felipa alkoztarra, hainbeste urtez ezindua etxetik atera gabe bizi izan dena bere alabaren zaintzapean eta Etsaingo Sabino, oso gazterik istripu bat izan eta ezindua. Herrian arrunt maitatua. Bizitzari kemena jarri diote biek ere.


Eta gure Pakita ere ez dugu atzen-duko berehalakoan, etxeko lanetan umil-umil aritzen zena; horrela ikusten genuen beti. Egun handira arte.



Julen, bere anaia eta gurasoekin



Silvia eta Alberto



Laura eta Aritz



Laida eta Unai



Sabino



Pakita



Inaxia



Felipa

NEUMÁTICOS BETELU**Juan Alonso Ortiz**

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Alizatorre (Basaburuak)



info@neumaticosbetelu.es

646 47 41 66

- Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
- Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
- Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 - 722 766 835****Lizaso****karikolaregoitz@gmail.com****DABID ELIZONDO PINTURAK****DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA****TEL.: 678 623866****argapin@hotmail.com****ZIAURRITZ**

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe





Zozketa

2017

Mundiala

Sarien zerrenda

Lista de Premios

Asteburuko bidaiak 2 lagunentzat
fines de semana para 2 personas

Txerri Gizen
Cerdos gordos

10

Axuri Eder
Hermosos
Corderos

3

16

Bazkari edo Afari bikoitz
Comidas o Cenas dobles

30 Saskitto

eta...beste anitz sari

y...un monton de regalos más

www.ametza.eus

